

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

4030

EBAZPENA, 2024ko abuztuaren 20koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baitira, batetik, 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak onartzen dituena, eta, bestetik, 2023ko ekainaren 18ko Ebazpena, prozesu horretako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua ematen duena.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko maiatzaren 18an emandako Aginduaren bidez, onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespeneko prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko azaroaren 18an emandako beste agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren Organismo Autonomoetako Fakultatiboen Goi-Mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalan enplegua finkatzeko prozesu bereziko deialdia egin zen, eta prozesu horretako oinarri espezifikoak onartu ziren.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian parte hartzeko onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendak onartu ziren.

Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako Eskalako Epaimahaiaren 2023ko uztailaren 21eko Erabakiaren bidez, behin 2023ko ekainaren 2ko Erabakiaren bidez onartutako behin-behineko emaitzen aurka jarritako erreklamazioak ebatzita, 2023ko ekainaren 1ean egindako probaren behin betiko emaitzak 2023ko uztailaren 28an hautaketa-prozesuaren webgunean argitaratzea onartu zen, eta iragarri zen urriaren 23an irekiko zela merezimenduak alegatzeko 20 egun balio-duneko epea.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko ekainaren 18ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu berezietako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua eman zen.

Oinarri orokorretako 9.3 apartatuan xedatutakoaren arabera, ikusita Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian parte hartzen duen pertsona baten kasuan IVAPek ezin izan duela egiaztatu hautaketa-prozesu hori arautzen duten oinarri espezifikoetako 2.3 apartatuan eskatzen den «Meatze ingeniarietako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua» izatearen betekizuna betetzen duela –oinarri orokorretako 3.3.e) apartatuan xedatutakoari dagokionez–, IVAPek aipatutako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian lanpostuak esleitzeko beharrezko titulua duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko eskatu zion aipatutako hautagaiari. Era

berean, errekerimendu horretan jakinarazi zitzaion ezen, adierazitako epearen barruan, eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, eskatutako dokumentazioa aurkeztuko ez balu, edo dokumentazio hori aztertuta ondorioztatuko balitzateke alegatutako betekizuna ez duela betetzen, ezin izango zaiola esleitu «Meatze ingeniartzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua» sarbide-titulua duen lanposturik, hargatik eragotzi gabe eskabidean faltsutzea egiteagatik izan lezakeen erantzukizuna.

Horretarako ezarritako epean hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, frogatuta geratu da hautagaiak ez duela betetzen aipatutako oinarri orokorren 3.3 apartatuan aurreikusitako sarbide-titulazioaren baldintza –«Meatze ingeniartzako lanbide arautuan jarduteko gaikuntza-titulua»–. Oinarri orokor horiek parte hartzeko betekizun orokorrak arautzen dituzte, eta nahitaez bete behar dira deitutako hautaketa-prozesuetan onartua izateko.

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoko Meatzeetako eskalan enplegua finkatzeko prozesu berezian parte hartzeko onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak onartzen dituen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2023ko otsailaren 9ko Ebazpena aldatzea, hautaketa-prozesuan parte hartzeko onartutako hautagai bat prozesutik baztertzeko.

Baztertutako hautagaia eta betetzen ez duen betekizuna zehaztuko dira Ebazpen honen eranskinean, zeina argitara emango baita hautaketa-prozesuaren web-orriko Eskaerak eta jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

Bigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako kidego eta eskaletan enplegua finkatzeko prozesu berezietako azken kalifikazioen eta eskainitako lanpostuen behin betiko zerrendak argitaratzeko agindua ematen zuen Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren 2024ko ekainaren 18ko Ebazpena aldatzea, zerrenda horietatik hautagai hori baztertzeko.

Hirugarren artikulua.– Gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango da Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo araberak. Errekurtsua jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekurtsua, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar dakioke, edo Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abuztuaren 20a.

IVAPeko Zuzendaritza hutsik dagoelako sinatzen du (maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.3 art.).

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuko Hautaketa eta Prestakuntzako zuzendariordea,
IMANOL URIGUEN GARAIZABAL.